AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN KIROL INSTALAZIOEN ERABILERARAKO ARAUTEGIA

NORMATIVA DE USO DE LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES DE AMOREBIETA-ETXANO

Amorebieta-Etxanoko Udalaren mendekoa den eta nortasun juridikoa eta ondasun propioak dituen Ametx erakunde autonomoa kudeatzen ditu Amorebieta-Etxanoko Udalaren kirol instalazioak. Amorebieta-Etxanoko hiritarrei kirol jarduerarako sarbidea erraztea du xede nagusietako bat, eta kirolaren garapena sustatzen du, beraren zentzurik zabalenean, horretarako.

Las instalaciones deportivas municipales de Amorebieta-Etxano son gestionadas por Ametx erakunde autonomoa, organismo autónomo dependiente del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano, con personalidad jurídica y patrimonio propios, y uno de cuyos objetivos principales es facilitar al total de la ciudadanía de Amorebieta-Etxano el acceso a la práctica deportiva, promoviendo para ello el desarrollo del deporte en su más amplia acepción.

Araudi honen xedea Amorebieta-Etxanoko Udaleko kirol-instalazioen erabilera arautzea da. Instalazio horietarako sarbidea edozein pertsonak izango du, betiere, araudi honi atxikita erabiltzen baditu, eta dagozkion tasa edo prezio publikoak ordaintzen baditu.

El objeto de este Reglamento es regular el uso de las instalaciones deportivas municipales de Amorebieta-Etxano, a las que cualquier persona podrá acceder, siempre que las utilice de acuerdo con la presente normativa y previo abono de las tasas o precios públicos correspondientes.

Era berean, kirol-instalazioen erabilera eta diziplina araudia ere arautu nahi du. Haren kudeaketa eta administrazioa Udalak Ametx erakunde autonomoari esleitu dizkionez, Ametx erakunde autonomoak dauka instalazio horiek gobernatzeko eta administratzeko ahala, barnean direla erabiltzeko, programatzeko, ikuskatzeko eta kudeatzeko mugapenak.

Asimismo tiene por objeto regular el régimen de uso y disciplina de las instalaciones deportivas cuya gestión y administración esté encomendada por el Ayuntamiento a Ametx erakunde autonomoa, ostentando éste la potestad de gobierno y administración de las citadas instalaciones, incluidas sus limitaciones de uso, programación, inspección y gestión.

Ametx erakunde autonomoak beretzat gordetzen du araudi hau argitzeko, aldatzeko edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea, eta beroriek eta araudi espezifikoak (ordutegiak, tasak, etab.) jendearen eskura egongo dira.

Ametx erakunde autonomoa Ametx erakunde autonomoa se reserva el derecho a dictar disposiciones o resoluciones para aclarar, modificar o desarrollar el presente Reglamento que junto con las normativas específicas (horarios, tasas, etc.,) estarán a disposición del público.

Araudi honek arautzen dituen instalazioen erabilerari eta kirol instalazioetan ematen diren zerbitzuei aplikagarri zaizkien tasak edota prezio publikoak Udalbatzak onartuko ditu urtero, Ametx erakunde autonomoaren Artezkaritza Batzordearen hasierako onarpenarekin eta dagokion zerga-ordenantza aldarazita.

Las tasas y/o precios públicos aplicables a la utilización de las diferentes instalaciones y servicios que se presten en las instalaciones deportivas reguladas por el presente Reglamento, serán las que anualmente apruebe el Ayuntamiento Pleno a través de la correspondiente modificación de la ordenanza fiscal, previo acuerdo inicial de la Junta Rectora de Ametx erakunde autonomoa.

Erakunde horren eskumenen barnean, Amorebieta-Etxanoko kirol-instalazio hauek hartzen dira aintzat (horiek guztiak kirola egitera eta gorputz-hezkuntza garatzera bideratutakoak):

Este Organismo tiene bajo su competencia las siguientes instalaciones deportivas del Municipio destinadas a la promoción y práctica deportiva, y al desarrollo de la educación física:

1.- Larrea udal kiroldegia
2.- Txolon udal futbol zelaia.
3.- Urritxe udal futbol zelaia.
4.- Amorebieta IV. Udal frontoia.
5.- Etxanoko udal frontoia.
6.- Zubizabalako udal frontoia.
7.- Eubako udal frontoia.
8.- Gure Kirolak instalazioak.
9.- Ixerbekoa udal kiroldegia.
10.- Jauregizahar udal kiroldegia.

Araudi hau, orobat, etorkizunean Ametx erakunde autonomoaren eskumenekoak bilakatzen diren kirol-instalazioetan aplikatuko da.

**1. ERABILTZAILEAK**
Erabiltzailetzat hartuko dira udalaren kirol-instalazioak erabiltzen dituzten edo kirol-jardueraren edo jarduera fisikoren bat praktikatzen duten pertsonak.

**1.1 ERABILTZAILE MOTAK**

Bost erabiltzaile mota daude:

**1.- ABONATUA:** instalazioetara abonatuta egonik ordainketa eguneratuta daukan pertsona.

Honako mota hauek daude:
a) Abonatu erroldatua. Amorebieta-Etxanon erroldatuta dagoen pertsona.
b) Abonatu ez-erroldatua. Amorebieta-Etxanon erroldatuta ez dagoen pertsona.

**2.- UDAL KIROL INSTALAZIOETAN EMATEN DIREN IKASTAROETAKO IKASLEAK:**

Halakotzat joko dira Udalaren Kirol instalazioetan ematen diren ikastaroetan izena emanda duten eta ordainketa eguneratua duten pertsona guztiak.

**3.- LIBREA:** Ez abonatua, ez ematen diren ikastaroetako ikaslea ez den erabiltzailea izanik, dagokion alogera edo prezioa ordainduta, instalazioak erabiltzen dituen pertsona.

1.- Polideportivo Municipal de Larrea.
2.- Campo de Fútbol Municipal de Txolon.
3.- Campo de futbol Municipal de Urritxe.
4.- Frontón Municipal Amorebieta IV.
5.- Frontón Municipal de Etxano.
6.- Frontón Municipal de Zubizabala.
7.- Frontón municipal de Euba.
8.- Instalaciones de Gure Kirolak.
9.- Polideportivo Municipal de Ixerbekoa.
10.- Polideportivo Municipal de Jauregizahar.

En cualquier caso, el presente Reglamento será igualmente de aplicación a las instalaciones deportivas que se incorporen en el futuro a la competencia de Ametx erakunde autonomoa.

**1. PERSONAS USUARIAS**
Se considerarán como tales a todas aquellas personas que hagan uso de las instalaciones deportivas municipales o participen en alguna actividad física o deportiva.

**1.1 TIPOS DE PERSONAS USUARIAS**

Se distinguen cinco tipos:

**1.- PERSONA ABONADA**: aquella persona que esté abonada a las instalaciones y se encuentre al corriente de pago.

Se distinguen los siguientes tipos:
a) Abonada o abonado empadronado.
Persona que está empadronada en Amorebieta-Etxano.
b) Abonada o abonado no empadronado.
Persona que no está empadronada en Amorebieta-Etxano.

**2.- ALUMNADO DE CURSOS IMPARTIDOS EN LAS INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES**:

Se considerará como tal a toda persona inscrita en los cursos impartidos en las instalaciones deportivas municipales que se encuentre al corriente de pago.

**3.- LIBRE**: Persona usuaria que no teniendo la consideración de persona abonada o alumna de cualquiera de los cursos que se imparten utilice las instalaciones abonando el alquiler o precio público correspondiente.

**4.- TALDEAK EDO TALDE ANTOLATUAK:** Izaera hau dute kirol-jarduerak egiteko, kirol-instalazioak taldeka erabiltzen dituzten erabiltzaileek.

Honako talde mota hauek bereizten dira:

-Herriko klubak eta kirol-elkarteak. Amorebieta-Etxanoko Udaleko Elkarteen Erregistroan izena emanda dutenak.

-Ikastetxeak. Ametx erakunde autonomoak garatzen dituen kirol-jardueretan eta programetan parte hartzen duten ikastegi publiko nahiz pribatuak, alde batetik, eta instalazioak libreki erabiltzen dituzten ikastegiak, bestetik.

**5.- JENDEA, ORO HAR:** kirol-ikuskizunetara, entrenamenduetara eta lehiaketetara Ametx erakunde autonomoaren instalazioetara ikusle doan pertsona, kirolariei laguntzera doazenak eta bisitariak izango dira.

**4.- COLECTIVOS Y GRUPOS ORGANIZADOS**: Reciben esta denominación todas las personas usuarias que de forma colectiva utilicen las instalaciones deportivas para realizar actividades deportivas.

Se distinguirán los siguientes tipos de colectivos:

-Clubes y asociaciones deportivas locales. Son quienes estén de alta como tales en el Registro de Asociaciones de Ametx erakunde autonomoa de Amorebieta-Etxano.

-Centros Escolares. Se distinguirán aquellos colegios tanto públicos como privados que participan en programas y actividades deportivas desarrolladas por Ametx erakunde autonomoa y aquellos otros que hagan uso de las instalaciones por libre

**5.- PÚBLICO GENERAL**: Aquella persona que asiste a los espectáculos deportivos, entrenamientos y competiciones en las instalaciones de Ametx erakunde autonomoa, así como acompañantes y visitantes.

**1.2. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.**

Kirol-instalazioen erabilerari dagokionez, honako eskubide hauek izango dituzte erabiltzaileek:

1. Instalazioei, ordutegiei, prezio publikoei, kirol-jarduerei eta bertara sartzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

2. Kirol zerbitzugintzan ari diren langileengandik arreta eta trataera egokia jasotzeko eskubidea. Edozein unetan, instalazioen zerbitzuetako edozein langile edo arduraduni identifikazioa eskatzeko eskubidea, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak egiteko.

3. Alokatu edo gorde zituzten kirol instalazioak erabiltzeko edo izena emanda zuten jardueretan parte hartzeko eskubidea, gordetako ordutegian eta aldian, betiere hori eragozten duen programatutako beste jarduerarik egiten ari ez badira, Ametx erakunde autonomoak baimendutako kirol ekitaldiak egiten ari ez badira, edo eguraldia txarraren edo konpondu ezin den matxuraren baten eraginez, ezinezkoa ez bada.

**1.2. DERECHOS Y DEBERES DE LAS PERSONAS USUARIAS.**

Las personas usuarias, en cuanto al uso y disfrute de las instalaciones deportivas, gozarán de los siguientes derechos:

1. Recibir información sobre las instalaciones, horarios, precios públicos, actividades deportivas y forma de acceso a las mismas.

2. Atención y trato correcto por parte del personal adscrito a los servicios deportivos. Podrá solicitar en cualquier momento la identificación de cualquier persona empleada o responsable de los servicios de las instalaciones, a los efectos de realizar las reclamaciones o sugerencias que estime oportuno.

3. Hacer uso de las instalaciones deportivas que alquilaron o reservaron, o de las actividades en que tuvieron inscripción, en los horarios y períodos reservados siempre y cuando no se estén desarrollando actividades programadas que lo impidan, no se celebren acontecimientos deportivos autorizados por Ametx erakunde autonomoa o sea imposible por inclemencias meteorológicas o avería no subsanable.

ametx
erakunde autonomoa zornotza

4. Ikastaroei dagokienez, izena emana duen eskola jasotzeko eskubidea; betiere, izena emanda dutenen kopurua gutxienekotik gorakoa bada.

5. Instalazioak behar den higiene, garbitasun eta segurtasunarekin erabiltzeko eskubidea, erreserbaturiko kirol-jarduera behar bezala garatuko dela bermatzeko.

6. Erabiltzaileari ez dagozkion arrazoiengatik, ordutegiarekin nahasteren bat badago, hartutako ordua atzeratzea –ordurako ezer programaturik ez badago– edo, libre badago, beste instalazio batera aldatzea aukera dezakete. Abonatuek eta erabiltzaile libreek kontratatutako zerbitzua itzultzea eskatu ahal izango dute, gertaeraren bat jazo edo zerbitzua bertan behera geratu denean (altzarietan edo instalazioetan matxurak). Ez da itzulketarik egingo eguraldiaren edo ezinbesteko arrazoiengatik gertatu denean (greba legala barne).

7. Hala behar denean, monitorearen ordezkoa edukitzeko eskubidea, salbuespenak salbu.

8. Uraren kalitatearen neurketari buruzko datuen berri (ph-a, kloro maila eta tenperatura) edukitzeko eskubidea, jendaurrean egon behar baitute.

9. Instalazioen erreserba, Ametx erakunde autonomoareb jendearentzako arreta puntuetan edo, ahal denetan, Internet bidez (www.ametx.eus).

10. Edozein erreklamazio, zalantza, kexa edo iradokizun idatziz eta askatasun osoz aurkezteko, eta gehienez hogeita hamar eguneko epean erantzuna jasotzeko eskubidea.

11. Indarrean dagoen legeari jarraiki, datu pertsonalen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna bermatuta edukitzeko eskubidea.

12. Udalaren kirol eskaintzari ahozko eta idatzizko informazioa eskuratzeko eskubidea, kirol zerbitzuen ezaugarriak zehazturik bertan.

13. Larrea kiroldegiko igerilekuan erabiltzaile orokorrentzat uneoro erabilgarri izango diren lau kaleetako batean ibiltzeko eskubidea, Ametx erakunde autonomoak baimentzen dituen kirol lehiaketak daudenean izan ezik.

4. En el caso de actividades pertenecientes a cursos, a recibir la clase en la que se inscribió, siempre que el número de inscritos supere el mínimo requerido.

5. Utilizar las instalaciones con buen grado de higiene, limpieza y seguridad, que asegure el correcto desarrollo de la actividad deportiva reservada.

6. En caso de desajustes horarios por causas ajenas a las personas usuarias, podrán optar por prorrogar su hora si no estuviera programada, o cambiar a otra instalación si estuviera libre. Las personas abonadas y usuarias por libre podrán solicitar la devolución del servicio contratado en caso de incidencia o suspensión del servicio (averías en el mobiliario o en las instalaciones). No se procederá a la devolución por motivos meteorológicos o de fuerza mayor (incluida la huelga legal).

7. Suplir las ausencias de los monitores, salvo circunstancias excepcionales.

8. Conocer los datos de mediciones de calidad del agua (ph, nivel de cloro y temperatura), que tienen que estar expuestos al público.

9. Reservar instalaciones acudiendo directamente a los puntos de atención al público o por Internet (www.ametx.eus) en los casos en que ello sea posible.

10. Poder expresar libremente por escrito cualquier reclamación, duda, queja o sugerencia, y a tener contestación en un plazo máximo de treinta días.

11. Tener garantizada la confidencialidad y privacidad de los datos personales, según la legislación vigente.

12. Tener a su disposición información oral y escrita sobre la oferta deportiva municipal Ametx erakunde autonomoa, donde se especifican las diferentes características de los servicios deportivos.

13. Derecho a utilizar una de las por lo menos cuatro calles disponibles en todo momento en la piscina del polideportivo Larrea para el público en general, salvo en los momentos en que se disputen competiciones deportivas autorizadas por Ametx erakunde autonomoa.

Kirol-instalazioen erabiltzaile guztiek honako betebehar hauek dituzte:

1. Instalazioak eta zerbitzuak araudi honetan zehaztutakoari eta araudia garatzen duten xedapenei eta kirol zerbitzuetakolangileen jarraibideei lotuta erabiltzea.

2. Instalazioko beste erabiltzaileak, jendea eta langileak errespetuz tratatzea, langileen lana erraztea, eta instalazioetan zuzen jokatzea kirol-materiala zaintzea; instalazioak garbi eta egoera onean mantentzen lagunduz.

3. Nork bere burua aurkeztu izen eta abizenekin, kirol zerbitzuetako langileren batek eskatzen diodanean.

4. Jarduera bakoitzari dagozkion kirol jantziak eta oinetako egokiak erabiltzea (kanpoan erabiltzen dena eta barruan erabiltzen dena bereiziz).

5. Instalazioen funtzionamendurako ordutegiak errespetatzea, eta kirol zerbitzuetako langileei jarraibideei jaramon egitea beti.

6. Arduragabekeriaz edo atzipez edozein kalte eraginez gero, horren arduradunak edo arduradunek ordaindu beharko dute kaltea.

7. Helbidea, telefono-zenbakia eta bankuko datuak aldatzean edo Erakundea utzi behar denean, horren berri idazkaritzan ematea.

8. Kuotaren ordainketa errespetatzea eta betetzea.

9. Instalazio guzti-guztien betebehar komunak betetzea.

Debekatuta dago:

a) Instalazioen barruan erretzea, direla barrukoak, direla kanpokoak.

b) Instalazioen barruan jatea, baimena berariaz adierazita dagoen tokietan izan ezik.

c) Aldalekuetatik kanpo janztea edo eranztea.

d) Sexu bateko pertsonak beste sexuarentzat gordeta dauden espazioetan sartzea, 8 urtetik beherako

Todas las personas usuarias de las instalaciones deportivas deberán atenerse a las siguientes obligaciones:

1. Utilizar las instalaciones y servicios conforme a las normas de este Reglamento y disposiciones que lo desarrollen y a las indicaciones que realice el personal adscrito a los servicios deportivos.

2. Tratar con respeto al resto de usuarios/as, público y personal de la instalación, favoreciendo la labor del mismo y comportarse correctamente en las instalaciones ayudando a mantenerlas limpias y en buen estado, y respetar el material deportivo.

3. Identificarse con nombre y apellidos, cuando así se lo requiera el personal adscrito a los servicios deportivos.

4. Utilizar el atuendo deportivo y calzado adecuado (diferenciando el utilizado fuera de las instalaciones y el del interior) a cada actividad.

5. Respetar los horarios de funcionamiento de las instalaciones, atendiendo en cualquier caso a las indicaciones del personal adscrito a los servicios deportivos.

6. Abonar la valoración de cualquier desperfecto ocasionado por negligencia o dolo por cuenta del responsable o responsables del mismo.

7. Comunicar los cambios de domicilio, teléfono y datos bancarios y bajas en la recepción del centro.

8. Cumplir las obligaciones de pago de la cuota.

9. Cumplir las obligaciones comunes de todas y cada una de las instalaciones:

No está permitido:

a) Fumar en la totalidad de las instalaciones deportivas, sean interiores o exteriores.

b) Comer en el interior de las instalaciones, excepto en las zonas señaladas al efecto.

c) Vestirse o desvestirse fuera de los vestuarios.

d) La entrada de personas de un sexo a espacios reservados exclusivamente al otro sexo, exceptuando

umeak izan ezik. Horrela denean, nagusi batek lagunduta sartuko dira.

e) Instalazioetan edari alkoholdunak saltzea edo edatea.

f) Instalazioetan animaliak sartzea.

g) Instalazioetan kristalezko objektuak sartzea.

h) Pipak, txikleak, gozokiak edobestelako produktuak jatea.

i) Patinak, patineteak, bizikletak eta gainerako gurpildun elementuak sartzea kirol instalazioetan eta, ondorioz, horrelakoetan ibiltzea, erabiltzaileek leku batetik bestera joateko ezinbestean behar dituztenak izan ezik.

### 1.3. ABONATUAK

1. Oro har, abonuak hainbat motatakoak izan daitezke (familiarrak, banakoak, arruntak, konbinatuak, urtekoak, hiruhilabetekoak, etab.), eta ezarrita dauden onurak, ezaugarriak eta prestazioak dagokien zerga-ordenantzan arautuko dira beren beregi.

2. Instalazioetara sartzeko, abonatu txartela erbailiko dute beti ere. Debalde emango da. Galdu edo apurtu delako, txartel berria behar izanez gero, udal zerbitzuak edo jarduerak emateagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzan ezarrita dagoen prezioa ordaindu beharko da.

3. Txartela norbanakoa eta besterenezina da, eta titularra ez den beste inork erabiliz gero, hilabetez kenduko da txartela, gainera, Ametx erakunde autonomoak ez du ezein zenbatekorik ordaindu behar izango. Behin eta berriz gertatzen bada, arau-hauste larritzat joko da eta dagokion moduan zigortuko da.

4. Abonuaren prezio publikoa edo tasa, helbideratuta ez dagoenetan, txartel bidez ordainduko da Ametx erakunde autonomoko kirol sailaren arreta puntuetako batean.

5. Abonatu izateari utzi nahi dionak idatziz jakinarazi beharko dio Ametx erakunde autonomoari, dagokion ekitaldia indarrean sartu baino gutxienez hamar egun lehenago.

menores de 8 años, los cuales pueden acceder a vestuarios del sexo contrario, acompañados de una persona adulta.

e) Vender o beber bebidas alcohólicas en las instalaciones.

f) Introducir animales en las instalaciones.

g) Introducir objetos de cristal en las instalaciones.

h) Comer pipas, chicles, otras golosinas u otros productos.

i) Introducir y, por ende, andar en patines, patinetes, bicicletas y demás elementos rodados en las instalaciones, salvo los que sean estrictamente necesarios para el desplazamiento de las personas usuarias.

### 1.3. LOS/AS ABONADOS/AS

1. Con carácter general los abonos podrán ser de diferentes tipologías (familiares, individuales, ordinarios, combinados, anuales, trimestrales, etc.) y los beneficios, características y prestaciones establecidos se regularán expresamente en las correspondientes ordenanzas fiscales.

2. Para el acceso a las instalaciones se utilizará siempre el carnet de abonado, que se facilitará gratuitamente. En caso necesitar una nueva por pérdida o rotura, se aplicará para su expedición el precio establecido en la ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales.

3. El carnet es personal e intransferible y su uso por persona diferente del titular llevará implícita la retirada del mismo por el período de un mes, sin derecho a abono de cantidad alguna por parte de Ametx erakunde autonomoa. Si se produce reiteración, será considerada como falta grave y se sancionará como corresponda.

4. El pago del precio público o tasa del abono, en caso que no esté domiciliado, se efectuará mediante tarjeta en los puntos de atención del departamento de deportes de Ametx erakunde autonomoa.

5. La persona abonada que desee causar baja de esta condición deberá comunicarlo por escrito a Ametx erakunde autonomoa en un plazo no inferior a diez días

6. Abonu-kuotari dagozkion eta itzultzen diren ordainagiriak, adierazten den modu eta epearen barruan ordaindu beharko dira. Ordainketa gauzatu arte, blokeatuta izango du Ametx erakunde autonomoak kudeatzen dituen instalazioetarako sarbidea.

Ezarritako epearen barruan ordaintzen ez badira, pertsona hori baja izango da berehala, zorretan daukan zenbatekoa ordaindu arte, eta kobratzeari ekingo zaio udal ordeantza fiskaletan eta bilketa-arloako gainerako legerian ezarrita dagoen eran.

**1.4. KIROL-ELKARTEAK ETA KLUBAK**

1. Legez eratuta dauden kirol-elkarteak eta klubak izango dira, Ametx erakunde autonomoaren aurrean, lehiaketa-kirolerako balio duten ordezkari bakarrak.

2. Aurreko puntua betetzeko, kirol elkarte edo klub bat legez eratua dagoela hartuko da beraren estatutuak Eusko Jaurlaritzaren Kiroletarako Zuzendaritza Nagusiak onartu eta Udalaren Kirol Elkarte eta Kluben erregistroan izena emanda duenean.

3. Egoitza AMOREBIETA-ETXANOn duten eta aurreko baldintzak betetzen dituzten klubek Ametx erakunde autonomoaren instalazioak erabili ahal izango dituzte euren jardueretarako, aurrez zehaztutako ordutegi eta egunetan, eta ezer ordaindu gabe. Erabilera hori aldez aurretik zehaztutako egun eta ordutegian egingo da. Erabiltzen hasi baino 20 minutu lehenago sartu ahal izango da instalazioetan, eta jarduera amaitu eta handik 20 minutura utzi beharko dira, betiere, instalazioen ordutegiaren barruan.

4. Instalazioak erabiltzeko ordutegiaren banaketa klub interesatuen beharrizanak entzun ondoren, egingo da, eta kirol-denboraldi baterako balioa izango dute.

5. Euren lehiaketa-partidak jokatzeko zelaiak eta pistak eskatzen dituzten klub federatu guztiek derrigor

hábiles anteriores a la entrada en vigor del ejercicio correspondiente.

6. Los recibos devueltos correspondientes a la cuota de abono deberán ser abonados de la forma y en el plazo que se indique. Hasta realizar el pago, tendrá bloqueado el acceso a todas las instalaciones deportivas gestionadas por Ametx erakunde autonomoa.

Si éstos no fueran pagados en el plazo establecido, automáticamente se procederá a dar de baja a la persona abonada y se procederá a realizar el cobro en la forma establecida en las ordenanzas fiscales municipales y en la legislación accesoria en materia de recaudación.

**1.4. LAS ASOCIACIONES Y CLUBES DEPORTIVOS**

1. Las asociaciones y clubes deportivos legalmente constituidos serán considerados como los únicos representantes válidos del deporte de competición ante Ametx erakunde autonomoa.

2. A los efectos del punto anterior se considerará que una asociación o club deportivo está legalmente constituido cuando tenga aprobados sus estatutos por la Dirección General de Deportes del Gobierno Vasco y esté inscrito en el registro de Asociaciones y Clubes Deportivos del Ayuntamiento.

3. Los clubes con sede social en AMOREBIETA-ETXANO y que cumplan los requisitos anteriores podrán utilizar las instalaciones de AMETX ERAKUNDE AUTONOMOA para desarrollar sus actividades en los horarios y calendarios definidos sin pago alguno. Dicha utilización se realizará de acuerdo con el calendario y horarios fijados de antemano. Se podrá acceder a las instalaciones 20 minutos antes de la utilización y deberán abandonarlas 20 minutos tras finalizar su uso, en todo caso dentro del horario de la instalación.

4. La distribución de los horarios de uso de las instalaciones se realizará por AMETX ERAKUNDE AUTONOMOA una vez oídas las necesidades de los clubes interesados y serán válidos durante el desarrollo de una temporada deportiva.

5. Todos los clubes federados que soliciten campos y pistas para jugar sus partidos de competición deberán

eman beharko dute Ametx erakunde autonomoan euren lehiaketa egutegiaren kopia bat.

6. Utzitako instalazioa Ametx erakunde autonomoari jakinarazi gabe hiru egunez erabiltzen ez duten taldeei hura erabiltzeko baimena kenduko zaie (ezinbesteko arrazoiak, eguraldi arazoak, etab. direnean izan ezik).

7. Ametx erakunde autonomoak instalazio eta dependentzien erabilera-baimenak eten ahal izango ditu haren iritziz lehentasuna duten beste erabilera batzuk emateko, betiere bidezkoak badira eta, horretarako, aldez aurretik jakinarazpena helaraziko die.

8. Ametx erakunde autonomoak haien eskura jarritako materiala edota botika-kutxa erabiliz gero, Ametx erakunde autonomoak zehaztutako tokian utzi beharko dute erabili ondoren.

9. Klubek bileretarako, hitzaldietarako, eta abarretarako egokituta dauden espazioak erabili ahalko dituzte, erabiltzeko baimena eskatu eta erreserba egin ondoren.

10. Lehiaketa ofizialak egiteko, kirol klubek denboraldiaren egutegia helarazi beharko dute idatziz eta, gutxienez hamabost egun lehenago, lehiaketetan egingo diren jarduerak eta ordutegiak adieraziko dira.

11. Kirol instalazio bakoitzerako onartutako egutegian zehaztuta dauden ordutegi orokorrei egokitu beharko zaizkie entrenamendu eta lehiaketa ofizialetako ordutegiak.

12. Kirol-elkarte eta klubek antolatutako kirol-ekitaldien erantzukizun zibila, entrenamendu-saioak barne, eurena izango da. Horretarako, dagokien erantzukizun zibileko poliza kontratatu behar dute, eta denboraldiaren hasieran polizen kopia eman behar diote Ametx erakunde autonomoari.

13. Instalazioetan lehiaketak eta ikuskizunak antolatzen direnean, ekitaldi publikoen erantzukizuna erakunde antolatzaileena izango da. Instalazioak erabiltzean sortutako kalteak edo hausturak erabilera erreserba egin zuen pertsonak edo erakundeak ordaindu beharko ditu. Lehiaketa ofizialetan, dagokien federazioari eta klubari emango zaie kalteen berri, eta bertako kluba

entregar, obligatoriamente, una copia de su calendario de competición en Ametx erakunde autonomoa.

6. Los equipos que no hagan uso de la instalación concedida por tres días, sin previa comunicación a Ametx erakunde autonomoa, se les anulará la concesión (a excepción de causas de fuerza mayor, inclemencias climatológicas, etc.).

7. Ametx erakunde autonomoa podrá suspender las concesiones de uso de instalaciones y dependencias antes señaladas para otros usos que estime prioritarios de manera justificada, previa comunicación a los mismos.

8. Los clubes que hagan uso del material y/o del botiquín de las instalaciones deportivas municipales, deberán devolverlo al lugar fijado por Ametx erakunde autonomoa.

9. Los clubes podrán hacer uso de los espacios para reuniones, charlas, habilitados por Ametx erakunde autonomoa, previa solicitud de uso y reserva.

10. Para las competiciones oficiales los clubes deportivos deberán comunicar por escrito, con una antelación de quince días, las actividades a desarrollar.

11. Los horarios de entrenamientos y competiciones oficiales se ajustarán a los horarios generales de las instalaciones deportivas prefijadas en el calendario aprobado para cada instalación.

12. La responsabilidad civil de los eventos deportivos organizados por las asociaciones y clubes deportivos, incluidas las sesiones de entrenamiento recaerá sobre los mismos. A este efecto deberán contratar la póliza de responsabilidad civil correspondiente, entregando a Ametx erakunde autonomoa al principio de la temporada las copias de las mismas.

13. La responsabilidad de los actos del público en las instalaciones durante la celebración de competiciones y espectáculos recaerá sobre las entidades organizadoras. Cualquier deterioro o rotura en las instalaciones que se origine su uso, serán por cuenta de la persona o entidad que efectuó la reserva de utilización. En el caso de competiciones oficiales estos daños serán comunicados a

izango da aurkako taldeek sortutako kalteen erantzule subsidiarioa.

la Federación y Club correspondiente, siendo el club local el responsable subsidiario de los desperfectos que originen los equipos contrarios.

14. Kirol-ekitaldietara sartzeko sarrera kobratzen duten kirol-erakundeek horren berri eman beharko diote aurretik Ametx erakunde autonomoari. Takilak erabili ahal izango dituzte (halakorik izanez gero). Bestalde, euren ardurapekoak izango dira bai langile kobratzaileak bai ekitaldia egokiro garatzeko kontrola. Horrelako egoeretan, ardura horren barruan sartuko dira kantxa, harmailak, sarrerak, markagailua eta esparru guztien garbiketa.

14. Las entidades deportivas que cobren entrada para acceder a los encuentros deportivos deberán comunicarlo previamente a Ametx erakunde autonomoa. Podrán hacer uso de las ventanillas de venta allí donde las hubiere, si bien será de su cuenta el personal para cobrar y realizar el control necesario para el buen funcionamiento del evento. Cuando se den estas circunstancias, en la reserva se incluirán la cancha de juego, graderíos, accesos, marcadores, megafonía y la limpieza de las áreas correspondientes.

15. Ekitaldi ez-ohikoak, baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa (Ikus II. eranskina).

15. Eventos extraordinarios, requisitos y documentación a presentar. (Ver Anexo II).

**2. TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK, KIROL INSTALAZIOEK ALOKAIRUA ETA ERRESERBA, ETA KIROL JARDUERETAN IZENA EMATEA**

**2. TASAS Y PRECIOS PUBLICOS, ALQUILER, RESERVA DE INSTALACIONES DEPORTIVAS E INSCRIPCIONES EN ACTIVIDADES DEPORTIVAS**

Tasa eta prezio publikoak Ametx erakunde autonomoaren Artezkaritza Batzordeak xedatutakoaren araberakoak izango dira eta Amorebieta-Etxanoko Udalbatzak ezarriko ditu.

Las tasas y precios públicos estarán sujetos a lo dictado por la Junta Rectora de Ametx erakunde autonomoa y serán establecidos por el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Amorebieta Etxano.

**2.1. ABONATUEN KUOTAK ETA IZEN-EMATEAK, IKASTAROAK, ALOKAIRUAK ETA JARDUERAK. PREZIOAK KOBRATZEA:**

**2.1. CUOTAS E INSCRIPCIONES DE LAS PERSONAS ABONADAS, CURSOS, ALQUILERES Y ACTIVIDADES COBRO DE PRECIOS:**

Ezarrita dauden tasak eta prezio publikoak Ametx erakunde autonomoaren administrazio zerbitzuak kobratu eta administratuko ditu.

La administración y cobro de las tasas y los precios públicos establecidos, tras las correspondientes gestiones, se llevará a cabo por la Administración de Ametx erakunde autonomoa.

1. Abonuak eta ikastaroetako kuotak jarduera motaren arabera ordainduko dira, abonuaren indarraldia, ikastaroa edo jarduera hasi baino lehen beti ere.

1. El pago de los abonos y cuotas de cursos se realizara en función de la tipología del mismo y con carácter previo al inicio del periodo de abono, curso o actividad.

2. Ordainketa helbideratze bidez egingo da. Helbideratuta egon ezean, web orriaren bidez gauzatuko da ahal denetan edo, bestela, Ametx erakunde autonomaren kirol zerbitzuaren arreta puntuetan, txartelaren bidez.

2. El pago del Precio Público o Tasa se realizará, en caso de no estar domiciliado, por medio de la página en la web en los casos en que sea posible, o mediante tarjeta en los puntos de atención del departamento de deportes de Ametx erakunde autonomoa.

3. Adin txikiko erabiltzaileen kasuan, prezioak gurasoek edo legezko tutoreek ordaindu beharko dituzte.

3. En el caso de usuarios o usuarias menores de edad los últimos responsables del pago de los precios, serán los padres, madres o tutores/as legales.

4. Adin txikikoa erroldatutzat jotzeko, haren aitak edo amak edo legezko tutoreak ere udalerrian erroldatuta egon beharko du.

4. Para considerar empadronado/a a un o una menor, deberá tener esta consideración el o la misma y su padres o madre, o quien sea su tutor legal.

**ITZULKETAK:**

**DEVOLUCIONES:**

Kobratutako zenbatekoak edo ordaintzeke daudenak honako kasu hauetan itzuliko edo ezeztatuko dira:

Se procederá a devolver las cantidades cobradas o se anularán las pendientes de cobro en los siguientes casos:

Ametx erakunde autonomoari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez denean. Aitzitik, izena emanda dagoen jardueran parte ez hartzea erabiltzaileak erabaki badu, ez du ordaindutako dirua bueltan jasoko.

Cuando la actividad no se realice por causa imputable a Ametx erakunde autonomoa. Por el contrario, si es la persona usuaria quien decide no asistir a la actividad a Ametx erakunde autonomoa la que previamente se ha inscrito, no tendrá derecho al reintegro de lo ya pagado.

**ERRESERBAK:**

1. Erreserbak egiteko bideak:

- Ametx erakunde autonomoaren kirol sailaren arreta puntuetan.
- Internet bidez, ahal den kasuetan, www.ametx.eus web orriaren bidez. Horretarako, erabiltzaileek alta eman beharko dute Ametx erakunde autonomoaren datu-basean, webgunean bertan.

2. Erabiltzaile bakoitzak –abonatua izan nahi izan ez –kantxa, pista edo kirol-instalazio bat astean ordubeterako erreserbatu ahalko du gehen jota, zerbitzuak, eskariari erreparatuta, erabilera handiagoa baimentzen duenean izan ezik.

3. Erreserbak behin betikotzat joko dira, eta ez da aldaketarik edo itzulketarik onartuko.

4. Pistei larriki eragiten dieten klimatologia arrazoiak direnean, normaltasunez jardutea ezinezkoa denean, interesdunek egun eta ordu aldaketa eskatu ahalko dute aurretiaz. Aldez aurretiko eskaerarik egin ezean, ez da inolako aldaketari egingo.

**RESERVAS:**

1. Las reservas se podrán realizar:

- En los puntos de atención del departamento de deportes de Ametx erakunde autonomoa.
- Por Internet, en los casos en que es posible, a través de la página www.ametx.eus, para lo que la persona usuaria deberá darse de alta en la base de datos de Ametx erakunde autonomoa, en la propia página web.

2. Cada persona usuaria –abonada o no abonada- podrá reservar como máximo una cancha, pista o instalación deportiva por una hora semanal, salvo que el servicio, teniendo en cuenta la demanda, permitiese una mayor utilización.

3. Las reservas se considerarán definitivas y no se admiten cambios ni devoluciones.

4. Cuando por causas climatológicas que afecten gravemente a las pistas e imposibiliten su práctica normal, la persona interesada podrá solicitar el cambio de día y hora con anterioridad. Sin la solicitud previa no se efectuará cambio alguno.

**3. KIROLETAKO IKASTAROAK ETA KANPAINAK**

1. Kirol-jarduera sustatzeko, kiroletako ikastaroak eta kanpainak antolatuko ditu urtero Ametx erakunde

**3. CURSOS Y CAMPAÑAS DEPORTIVAS**

1. Ametx erakunde autonomoa organizará cursos y campañas deportivas orientados al desarrollo de la

autonomoak, eta haien eskaintza herritar guztiei zuzenduko zaie.

2. Erabiltzaileen gogobetetasuna lortzea eta kirola ahalik eta gehien hedatzea da ikastaro eta kanpaina horien funtsezko helburua.

3. Oro har, ikastaroak urte osoan izango dira, eta ahal den heinean, eskaeraren araberakoak izango dira.

4. Ikastaroak eta kanpainak ezarritako Tasa eta Prezio publikoei buruzko Ordenantzari atxikita egongo dira.

5. Ikastaroetan, kanpainetan eta lehiaketetan parte hartzeko, gehieneko eta gutxieneko pertsona kopurua eskatuko da. Ezarritako gutxieneko kopurua gainditzen ez bada, ez dira egingo. Gehienekoa gainditzen bada, berriz, zozketa publikoaren bidez esleituko dura lakueak. Gainerako eskatzaileek itxarote zerrenda osatuko dute ordenan.

6. Plaza hutsak baldin badaude, edozein unetan eman ahal izango da izena, eta jarduerak dirauen bitartean iraungo du hark ere.

7. Prezio Publikoa ez ordaintzeak, jardueran berehala baja izatea ekarriko du, eta beste jardueraren batean izena ematen badu, zorretan duen zenbatekoa ordaindu beharko du aldez aurretik.

Kirol-jarduerarako gai dela ziurtatzeko, mediku-azterketa egitea gomendatzen du Ametx erakunde autonomoak, eta edozein erabiltzaileri eska diezaioke hori, kirol-jarduerari ekin aurretik.

**4. INSTALAZIOETARA SARTZEKO ETA BERTAN IBILTZEKO ARAU OROKORRAK**

1. Instalazioetara sartzeko, Ametx erakunde autonomoak emandako txartel pertsonala erabili behar da oro har edo, bestela, sarreran dagokion tasa edo prezioa ordaindu izanaren tiketa.

2. Ez dira Ametx erakunde autonomoaren erantzukizunpekoak takiletan edo aldageletan utzitako

práctica deportiva, cuya oferta irá dirigida a todos los segmentos de la población.

2. Dichos cursos y campañas tendrán como objetivo primordial conseguir la mayor satisfacción de las personas usuarias y la divulgación del deporte.

3. Por lo general los cursos se desarrollarán durante todo el año, ajustándose en la medida de lo posible a la demanda.

4. Los cursos y las campañas estarán sujetos a la Ordenanza de Tasas y Precios Públicos establecida.

5. Tanto los cursos como las campañas tendrán un número máximo y mínimo de personas inscritas para su desarrollo.
En el caso de que no se superara el mínimo establecido, el curso no se iniciaría.
Si se supera el número máximo de plazas, éstas se adjudicarán por sorteo público y el resto de las personas solicitantes constituirán, por orden, la correspondiente lista de espera.

6. En cualquier momento, siempre y cuando haya plazas vacantes, podrá solicitarse la inscripción, entendiéndose ésta indefinida mientras dure la actividad.

7. El impago del Precio Público supondrá la baja automática del mismo, y en el caso de que se vuelva a apuntar en cualquier otra actividad o servicio deberá abonar previamente la cantidad pendiente.

Ametx erakunde autonomoa recomienda realizar un reconocimiento médico de aptitud para la práctica deportiva y podrá exigirlo a cualquier usuario/a, previo al inicio de una actividad deportiva.

**4. SOBRE NORMAS GENERALES DE ACCESO Y UTILIZACION DE LAS INSTALACIONES**

1. El acceso a las instalaciones se hará, con carácter general, mediante el carnet personal emitido por Ametx erakunde autonomoa o mediante el tícket o entrada adquirido previo pago de la tasa o Precio público.

2. Ametx erakunde autonomoa no responde de la custodia de objetos depositados en taquillas o vestuarios, ya que el

gauzak; izan ere, gauzen gordailaketa ez Ametx erakunde autonomoaren kontratuaren barruan.

depósito de los mismos no está respaldado mediante contrato de depósito por Ametx erakunde autonomoa.

3. Pertsonei edo ondasunei eragiten zaien kalteen erantzukizuna kaltea eragin duen pertsonarena edo erakundearena izango da, eta ez veste inorena.

3. Cualquier daño a personas o bienes será responsabilidad exclusiva de la persona o entidad que lo realice.

4. Ametx erakunde autonomoak badu Erantzukizun Zibileko poliza, eta poliza horrek instalazio guztietan kirola egitearen ondorioz sor litezkeen kalteak hartzen ditu barnean; betiere kaltearen eta zerbitzuaren ohiz kanpoko funtzionamenduaren artean kausa-efektu erlaziorik baldin badago.

4. Ametx erakunde autonomoa tiene suscrita Póliza de Responsabilidad Civil que cubre los daños causados como consecuencia de la práctica deportiva en todas sus instalaciones, siempre y cuando se establezca una relación causa efecto entre el daño y el funcionamiento anormal del servicio.

5. Instalazioak erabiltzeko, kirol-jantziak eraman beharko dira beti, instalazio bakoitzaren erabilerari kontu eginda.

5. La utilización de las instalaciones se hará siempre con atuendo deportivo y respetando la especificidad de cada una de ellas.

6. Ikastaro/jardueretako lehentasun ordena ondorengo hau izango da:

A. Kasuan kasuko taldean tokia ziurtatuko da, jarduera hasi baino lehenago izena emanez gero.

B. Lehendabizi tokia dute ordutegian izena eman dutenek; bigarrenez, jarduera berean baina beste ordutegi batean izena eman dutenek eta, azkenik, multikiroletan izena emanda dutenek.
C. Probatzera datozenek ez dute inola ere lehentasunik izango.

6. El orden de preferencia en los cursos/actividades será el siguiente:

A. Se tendrá plaza asegurada en el grupo al que se apunte, siempre que se acuda con un margen de antelación al comienzo de la actividad.
B. Primeramente tienen plaza los del horario al que están apuntados, en segundo lugar los de esa actividad en otros horarios, en tercer lugar los apuntados en multiactividad.
C. Los que vienen a probar no tendrán preferencia en ningún caso.

7. Takilak ezinbestean erabili beharko dira, kirol-jardueran aritu eta instalazioetan egon bitartean, eta orduan soilik. Jarduera amaitutakoan, takilak hutsik geratu behar du. Horrela izan ezik, objektuak gehienez 15 egunez egongo dira jasota, horretarako egokitutako toki batean.

7. Las taquillas serán utilizadas de manera obligatoria, y exclusivamente mientras se realiza la práctica deportiva y se permanece en las instalaciones. Una vez finalizada ésta, la taquilla deberá quedar libre, en caso contrario se procederá a su apertura y depósito de los objetos hallados en la misma en un lugar habilitado al efecto, por un periodo máximo de 15 días.

8. Ezin da instalazioetan jan eta ezin da bertara kristalezko objekturik sartu, horretarako adierazitako gunean izan ezik. Abenduaren 28ko 28/2005 Legea betetze aldera, instalazioetan ezin da erre.

8. No está permitido comer ni introducir objetos de cristal en el interior de las instalaciones, excepto en la zona señalada al efecto. En cumplimiento de la Ley 28/2005 del 28 de Diciembre, no está permitido fumar en las instalaciones.

9. Ezin da animaliarik sartu, legediak gida-txakurrei dagokienez xedatuta dituen kasuetan izan ezik.

9. No se permite la entrada de animales a excepción de lo contemplado en la ley de perros guía.

10. Jantzi eta erantzi, talde edo jarduera bakoitzari esleitutako aldageletan egin behar da.

10. Los cambios de vestimenta e indumentaria se realizarán exclusivamente en los vestuarios asignados a cada grupo o a cada actividad.

11. Instalazioetan edo haren perimetroan publizitatea edo kartelak ipini nahi dituzten kirol-elkarte edo klubek Ametx erakunde autonomoaren berariazko baimena behar dute, eta espazioak proportziotasun-irizpideen arabera banatuko dira. (Ezin da publizitaterik jarri).

12. Oro har, instalazioen barruan ezin dira pertsonak, instalazioak edo jarduerak filmatu, grabatu edo haien argazkirik egin Ametx erakunde autonomoaren baimenik gabe.

13. Azken urtean arau-hauste larria edo oso larria egin dutelako zigortuta egon direnei eta euren portaerarekin zerbitzuak eta instalazioak desegoki erabiltzea eragin dutenei –Artezkaritza Batzordeari eta begiraleei hala adierazi zaienean– ez zaie instalazioak eta zerbitzuak erabiltzen utziko.

14. Beren beregi debekatuta dago:

a) Kirol-ikuskizunetan, indarkeria sustatzen duten pankartak, ikurrak, enblemak edo esaldiak erakustea.
b) Kirol-ikuskizunak egiten ari diren instalazioetan edozein arma mota (agintaritzaren agenteek euren zeregina betetzeko –jardunean badaude– eta bizkartzainek euren zeregina betetzeko –betiere jardunean badaude– daramatzatenak izan ezik), edo jaurtitzeko objekturik sartzea.
c) Edari alkoholdunak sartzea eta saltzea.
d) Bengalak edo artifiziozko suak sartzea.
e) Ezein pertsonaren duintasunaren aurkako jarrera edota adierazpenak erakustea, sexua, arraza, joera sexuala, sinesmenak edo ideologia direnak direla ere.

15. Aldagelen erabilerari dagokionez:

- Hamasei urtetik beherakoek osatutako talde antolatuak eurekin datozen baimenduriko pertsona helduekin sartuko dira beraiek bakarrik erabiltzekoak diren aaldageletan (irakaslea, entrenatzailea edo begiralea).

- Erabiltzaileek arropaz aldatu eta garbitzeko behar-beharrezko denbora emango dute bertan,

11. Las Asociaciones o Clubes Deportivos que deseen colocar cualquier tipo de publicidad o carteles en cualquier lugar de la instalación o su perímetro, deberán obtener previamente la autorización expresa de Ametx erakunde autonomoa, adjudicándose los espacios con criterios de proporcionalidad. (No se puede colocar publicidad)

12. Con carácter general, en los recintos no se permiten la filmación, grabación o fotografías a personas, instalaciones u actividades sin autorización previa de Ametx erakunde autonomoa.

13. Se excluirá del uso de las instalaciones y servicios a quienes hubieran sido sancionados por falta grave o muy grave en el último año y a quienes con su conducta hubieran provocado un mal uso del servicio e instalaciones y así lo hubieran manifestado y puesto en conocimiento de la Junta Rectora.

14. Se prohíbe expresamente:

a) La introducción y exhibición en espectáculos deportivos de pancartas, símbolos, emblemas o leyendas que impliquen una incitación a la violencia.
b) La introducción en las instalaciones en las que se celebren espectáculos deportivos de toda clase de armas (salvo las portadas por agentes de la autoridad o escoltas en cumplimiento de sus funciones y siempre que esté en activo) u objetos arrojadizos.
c) Introducir y vender toda clase de bebidas alcohólicas.
d) La introducción de bengalas o fuegos de artificio.
e) Todo tipo de actitudes y/o expresiones que atenten contra la dignidad de cualquiera de las personas presentes, sea cual sea su sexo, raza, tendencia sexual, creencia o ideología.

15. En lo referente al uso de vestuarios:

- Los colectivos o grupos organizados formados por menores de dieciséis años no podrán acceder a vestuarios de uso exclusivo si no es en compañía de persona adulta responsable autorizada (profesorado, entrenador o entrenadora o monitorado).
- Las personas usuarias deberán permanecer el tiempo indispensable para cambiarse de ropa y su aseo, no pudiendo exceder de veinte minutos.

eta ezin izango da hogei minutu baino gehiago izan.

- Aldageletan ezin da erre, jan eta kristalezko objektuekin sartu.
- Aldageletan ezin da oinetako lohituekin sartu.
- Ezin da arroparik utzi aldageletan. Horretarako, takilak daude.
- Aldageletan ezin dira kirol jantziak garbitu.
- Ezin da bizarrik kendu ezta depilatu ere.
- Paperontziak derrigor erabili behar dira.
- Dutxan derrigorrezkoa da txankletak erabiltzea.
- Portaera bandalikoek edo araudi hau urratzeak dagokien zigorra eragingo dute, eta zigorra banako erantzuleari nahiz taldeari ezarriko zaio. Horrez gain, eragindako kalteen ondorioz sortutako gastuak ere ordaindu beharko dituzte.

- No se permite fumar, comer y acceder con objetos de vidrio dentro de los vestuarios.
- No se permite acceder con el calzado embarrado dentro de los vestuarios.
- No se permite dejar la ropa y calzado en los vestuarios para conseguir una rotación adecuada de los mismos. Para tal fin están las taquillas.
- No se permite la limpieza de las prendas deportivas dentro de los vestuarios.
- No se permite el afeitado ni la depilación.
- Es obligatorio el uso de papeleras.
- En las duchas es obligatorio el uso de chancletas.
- Los comportamientos vandálicos o el incumplimiento de la presente normativa darán lugar a la correspondiente sanción, que podrá ser individual o del colectivo responsable. Todo ello sin perjuicio del abono de los posibles gastos por los daños causados.

## 5. KIROL-EKIPAMENDUA ERABILTZEKO ARAUAK

### 5.1 IGERILEKU ESTALIAK

1) Instalazio horiek herritarren uretako jarduera fisikorako eta jostaketarako dira, bai eta igeri egiteko ikasteko eta hobetzeko ere.

Era berean, ordu jakinetan, hainbat espazio (kale) kirol-klubek erabiliko dituzte euren jarduera espezifikoetarako, eta Ametx erakunde autonomoak antolatzen dituen igeriketa klaseen arduradunek.

2) Ametx erakunde autonomoak ez du erantzukizunik hartzen erabiltzaileek igeri egiten ez dakitelako edo beharrezko zuhurtziaz jokatzen ez dutelako igerilekuetan istripurik badute. Ondore horretarako, debekatuta dago 12 urtetik beherakoak instalazioetan sartzea haren arduradun izango den adin nagusikoren batek laguntzen ez baditu (salbuespen dira, Ametx erakunde autonomoak berak antolatutako programak). 10 eta 12 urteko pertsonak beren arduradun izango den adin nagusiko inork lagundu gabe sartu ahalko dira, gurasoek edo legezko tutoreak idatzizko baimena sinatuz gero.

## 5. DE LAS NORMAS DE UTILIZACION DE LOS EQUIPAMIENTOS DEPORTIVOS.

### 5.1 PISCINAS CUBIERTAS

1) La utilización de esta instalación está destinada a la actividad física y el esparcimiento acuático de la ciudadanía, así como al aprendizaje y el perfeccionamiento de la natación.

De igual modo, determinados espacios (calles) y horarios serán utilizados por los clubes deportivos para el desarrollo de sus actividades específicas, y para los cursos de natación organizados por Ametx erakunde autonomoa.

